7. En lo no previsto en este Decreto Foral en cuanto al procedimiento administrativo, será de aplicación la Ley 30/92, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIONES FINALES

PRIMERA.

Se autoriza al Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica a dictar cuantas disposiciones y suscribir cuantos convenios considere necesarios para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

BIGARRENA.-

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen foru diputatuari, halaber, ahalmena ematen zaio Dekretu honen bosgarren artikuluan aurreikusitako lagapen-hitzarmenak sina ditzan.

SEGUNDA.-

Se faculta al Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica para formalizar los convenios de cesión previstos en el artículo quinto del presente Decreto Foral.

HIRUGARRENA.-

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

TERCERA.-

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

LAUGARRENA.-

Honako Dekretu honetan jasotzen diren laguntzak edo subentzioak Batzordearen 2001eko urtarrilaren 12ko 69/2001 (EB) Araudian xedaturik dagoena dute manuzko. Araudi hori, 2001eko urtarrilaren 13an Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, minimis laguntzei EB Tratatuaren 87. eta 88. artikuluen aplikazioari buruzkoa da; horrenbestez, arautegi hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekarri ahalko lioke urratzaileari

CUARTA.-

Las ayudas o subvenciones contempladas en el presente Decreto están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (CE) nº 69/2001 de la Comisión de 12 de enero de 2001, publicado en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 13 de enero de 2001 relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas de MINIMIS y en consecuencia el incumplimiento de esa normativa, podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para el infractor.

Bilbon, 2004ko azaroaren 16an.

Bilbao, a 16 de noviembre de 2004

BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

DIPUTADO GENERAL DE BIZKAIA

Sin./Fdo.: José Luis Bilbao Eguren

BERRIKUNTZA ETA EKONOMI SUSTAPEN SAILEKO FORU DIPUTATUA

DIPUTADO FORAL DE INNOVACIÓN Y PROMOCIÓN ECONÓMICA

Sin./Fdo.:José Antonio Campos Granados

## ERANSKINA

### LAGAPEN HITZARMENA

Bilbon, __(e)ko _________aren ____(e)an

**BILDUTAKOAK**

**Alde batetik**,

________________________ jaun/andrea, adin nagusikoa, NANan _________ zenbakia eta, hitzarmen honen ondoreetarako, egoitza Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailean duena, Bilboko Obispo Orueta kaleko 6. zenbakian; eta

_________________________ jaun/andrea, adin nagusikoa, NANan _________ zenbakia eta, hitzarmen honen ondoreetarako, egoitza BEAZ, S.A. enpresan duena, Bilboko Rekalde etorbideko 18. zenbakian.

**Bestetik**,

_________________________ jaun/andrea, adin nagusikoa, NANan ________ zenbakia eta, hitzarmen honen ondoreetarako, egoitza _______ -n duena, _____________ kalean.

**PARTAIDEAK**

_________________________ jaun/andrea, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ordezkaritzat, Sustapen Ekonomiko Saileko Foru Diputatua baita, jakina eta nabaria denez.

______________________________ jauna, BEAZ, S.A. Sozietate Publikoaren izenean eta berorren ordezkaritzat, bertako

## ANEXO

### CONVENIO DE CESIÓN

En Bilbao, a __ de _________ de ____

**REUNIDOS**

**De una parte**,

D/Dª. ____________________________, mayor de edad, con DNI nº _________, y domicilio, a efectos de este convenio, en el Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, en Bilbao, c/ Obispo Orueta, nº 6; y

D/Dª. ____________________________, mayor de edad, con DNI nº _________, y domicilio, a efectos de este convenio, en BEAZ, S.A., en Bilbao, Alda. Recalde, nº 18.

**Y de la otra**,

D/Dª. ____________________________, mayor de edad, con DNI nº ________, y domicilio, a efectos de este convenio, en _______, c/ _____________.

**INTERVIENEN**

D./Dª ______________________________, en nombre y representación de la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, en su calidad de Diputado/a Foral de Innovación y Promoción Económica, conforme es público y notorio.

D. _______________________________, en nombre y representación de la Sociedad Pública BEAZ, S.A., en su calidad de

Zuzendaria/Gerentea baita, ______(e)ko notarioa den ________________________ jaunak/andreak emandako ahalmenaren arabera, __/__/__(e)an, ______ zenbakidun protokoloarekin, hori indarrean eta aldatu barik baitago egintza honi dagokionez.

__________________________ jauna/andrea, _______________ Sozietatearen izenean eta berorren ordezkaritzat, bertako ______________ baita, ________(e)ko notarioa den ________________________ jaunak/andreak emandako ahalmenaren arabera, __________(e)an, ______ zenbakidun protokoloarekin, hori indarrean eta aldatu barik baitago egintza honi dagokionez.

Parte hartu duten alderdiek batak besteari onartu diote elkarren ordezkaritza, baita hitzarmen hau emateko gaitasun nahikoa ere.

## AURREKARIAK

A) Bizkaiko Foru Aldundia Sondikako BEZA MINTEGIA eraikiaren jabea da; eraikin hori zenbait industri eraikinek osatzen dute, eta horiek enpresa onuradunek banaka erabiltzeko moduko moduluetan banaturik daude, eta elementu komunak ere badituzte, enpresa erabiltzaile guztiek erabili ahal izateko modukoak.

B) ____________aren ____(e)ko __/_____ zenbakidun Foru Aginduak _______________ _________________ enpresari (aurrerantzean *enpresa lagapen-hartzailea*) Sondikako BEAZ MINTEGIA deritzonean kokaturiko _____ zenbakidun Moduluaren erabileraren lagapena eman zion (benetako azalera _____ $m^2$, obran neurtua), eranskina eta hitzarmen honen zatia den planoan ezarritakoaren arabera.

Director/a-Gerente de la misma, conforme al poder otorgado ante el/la Notario/a de ______, D./Dª ________________________, con fecha __/__/__, con el nº ______ de su protocolo, que manifiesta vigente y no modificado en lo que a este acto interesa.

D/Dª. __________________________, en nombre y representación de la Sociedad _______________, en su calidad de ______________ de la misma, conforme al poder otorgado ante el/la Notario/a de ________, D./Dª. ________________________, con fecha __________, con el nº ______ de su protocolo, que manifiesta vigente y no modificado en lo que a este acto interesa.

Las partes intervinientes se reconocen mutuamente la representación con que actúan y la capacidad suficiente para el otorgamiento del presente convenio.

## ANTECEDENTES

A) La Diputación Foral de Bizkaia es propietaria del edificio BEAZ MINTEGIA de Sondika, sito en dicho municipio, constituido por construcciones industriales, divididas en módulos susceptibles de uso individual por las empresas beneficiarias, así como determinados elementos comunes, de uso compartido por las diferentes empresas usuarias.

B) La Orden Foral nº __/_____, de __ de _______, concedió a la empresa ___________ __________________________ (en lo sucesivo *la empresa cesionaria*), la cesión en uso del Módulo nº ____, ubicado en BEAZ MINTEGIA de Sondika, de _____ $m^2$ de superficie útil real, medida en obra, de acuerdo con el plano que se incorpora como anexo y parte integrante del presente convenio.

C) BEAZ, S.A. Sozietatea Sondikako BEAZ MINTEGIA eraikina kudeatzeko eta administratzeko ardura duen Sozietate Publikoa da, ___________aren ____(e)ko ___/____ Foru Dekretuko 2. eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta dekretu horrek eraikineko moduluen lagapena arautzen du. Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiak, egintza honen bitartez, BEAZ, S.A. Sozietateari ahalmena ematen dio, hitzarmen honek eratxikitako eskubideak eta eskumenak gauzatzeko, eta _________________________________________

__________________________ Sozietateak, egintza honen bidez, berariaz onartzen du hori.

D) Enpresa lagapen-hartzaileak, egintza honetan duen ordezkariaren bitartez, berariaz adierazten du B) aurrekarian aipaturiko Foru Aginduko baldintza guztiak onartzen dituela, baita Sondikako BEAZ MINTEGIA eraikineko moduluen lagapena arautzen duen ___________aren ____(e)ko ___/___ Foru Dekretuko baldintzak ere.

Azaldutako aurrekarietan oinarrituz, alderdiek ERABILERA LAGATZEKO HITZARMEN hau formalizatu dute, honako klausula hauetan ezarritakoaren arabera:

**KLAUSULAK**

I.- XEDEA

Bizkaiko Foru Aldundiak ____________ ______________ enpresari lagatzen dio (eta horrek lagapena onartu) Sondikako BEAZ MINTEGIA eraikineko ___ zenbakidun moduluaren erabilera (benetako azalera ____ $m^2$), eranskina eta hitzarmen honen zatia den planoan ezarritakoaren arabera.

C) BEAZ, S.A., es la Sociedad Pública encargada de la gestión y administración del edificio BEAZ MINTEGIA de Sondika, según lo establecido en los artículo 2 y 12 del Decreto Foral ___/____, de __ de ________, regulador de la cesión de módulos en el edificio señalado. En consecuencia, la Diputación Foral de Bizkaia, por medio de su representante en este acto, faculta expresamente a BEAZ, S.A., para que ejercite los derechos y competencias que este convenio le atribuyen, lo que la Sociedad __________________________, por medio de su representante en este acto, acepta expresamente.

D) La empresa cesionaria, por medio de su representante en este acto, manifiesta expresamente que conoce, acepta y suscribe íntegramente los términos y condiciones de la Orden Foral citada en el Antecedente B), y del Decreto Foral ___/____, de __ de _________, regulador de la cesión de módulos en el edificio BEAZ MINTEGIA de Sondika.

En base a los antecedentes descritos, las partes comparecientes formalizan el presente CONVENIO DE CESIÓN DE USO, con arreglo a las siguientes:

**CLÁUSULAS**

I.- OBJETO

La Diputación Foral de Bizkaia cede a la empresa ____________________, que acepta la cesión, el uso del Módulo nº ___ del BEAZ MINTEGIA de Sondika, de _____ $m^2$ de superficie aproximada, de acuerdo con el plano que se incorpora como anexo del presente convenio, y que forma parte integrante del mismo.

II.- LAGATAKO MODULUAREN ERABILERA

1.- Lagatako modulua enpresa lagapen-hartzaileak _____________________________ __________________ jarduerarako baino ezin izango du erabili, modulua lagatzeari buruzko Foru Aginduan ezarritakoaren arabera, eta beste edozein erabilera baztertuta geldituko da. Jardueran baimendu gabeko aldaketarik eginez gero, horrek hitzarmenaren berehalako ebazpena ekarriko du.

2.- Enpresa lagapen-hartzaileak ezin izango du jasanarazi ____ kg/m$^2$-tik gorako zama estatikoa. Bestela, horren eraginezko kalte guztien erantzukizuna izango du, eta konponketa gastuak berak ordainduko ditu, betebehar hori ez betetzeak hitzarmenean eragindako ebazpenaren kalterik gabe.

3.- Instalaturiko potentzia handitzeko (KWA), BEAZ, S.A. Sozietateak berariazko baimena eman beharko du aurretiaz. Gehieneko potentzia elektrikoa hauxe izango da:

- Indarra: ________Kw.
- Argiztapena: ________ Kw.

4.- Enpresa lagapen-hartzaileak kontserbazio, funtzionamendu, segurtasun eta garbiketa egoera onean edukiko du, erabiltzeko laga zaion modulua, jabetzari edo beste enpresa lagapen-hartzaileei kalterik ez eragiteko moduan, eta modulutik irteten denean hori egoera bikainean itzuli beharko du.

5.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta BEAZ, S.A. Sozietateak lagatako modulua ikuskatzeko ahalmena dute, berorren kontserbazio egoera egiaztatzeko; halaber, enpresa lagapen-hartzaileari beharrezko konponketa guztiak egiteko

II.- USO DEL MODULO CEDIDO

1.- El módulo cedido deberá ser utilizado por la empresa cesionaria, única y exclusivamente, para la actividad de ___________________________________, de acuerdo con lo establecido en la Orden Foral de cesión de módulo, con exclusión de cualquier otra. Cualquier cambio de la actividad no autorizado, conllevará la resolución inmediata del presente convenio.

2.- La empresa cesionaria no podrá hacer soportar una sobrecarga de uso de carga estática puntual superior a _____ kg/m$^2$. En caso contrario, será responsable de los daños producidos, siendo a su cargo los gastos de reparación, sin perjuicio de la resolución del convenio a que el incumplimiento de esta obligación dará lugar.

3.- Cualquier aumento en la potencia instalada (KWA) deberá ser autorizada, previa y expresamente, por BEAZ, S.A. La potencia eléctrica máxima será:

- Fuerza: _______ _ Kw.
- Alumbrado: _______ _ Kw.

4.- La empresa cesionaria mantendrá en buen estado de conservación, funcionamiento, seguridad y limpieza el módulo que le ha sido concedido en uso, y en términos que no perjudiquen a la propiedad u otras empresas cesionarias, debiendo devolverlo a su salida en perfectas condiciones.

5. La Diputación Foral de Bizkaia y BEAZ, S.A., se reservan la facultad de inspeccionar el módulo cedido para comprobar el estado de conservación del mismo, y de ordenar a la empresa cesionaria la realización de las

agindua emateko eskumena dute, eta azken horrek konponketok nahitaez egin beharko ditu, hurrengo atalotan ezarritakoaren arabera.

reparaciones que consideren necesarias y que esté obligada a realizar conforme se determina en los apartados siguientes.

6.- Enpresa lagapen-hartzaileak, moduluan, beharrezko konponketa guztiak ordaindu eta egin beharko ditu, berorren kontserbazio eta erabilera egoera ona mantentzeko; egin ezean beste enpresa lagapen-hartzaile batzuetan kalteak eragin ahal dituzten konponketa guztiak, gainera, berehala egin beharko ditu, baita eraikinaren egonkortasuna, kanpoko batasuna edo apaindura arriskuan jar dezaketen guztiak ere.

6.- La empresa cesionaria deberá sufragar y ejecutar en el módulo las reparaciones necesarias para mantener el mismo en buen estado de conservación y utilización, debiendo ejecutar inmediatamente aquellas cuya omisión pueda dañar a otras empresas cesionarias, o comprometer la estabilidad, la uniformidad externa o el decoro del edificio.

Nolanahi ere, modulua erabiltzearen edo bertako jarduera garatzearen ondorioz elementu komunetan, moduluan bertan edo beste enpresa lagapen-hartzaile batzuetan sortzen diren kalteen erantzukizuna izango du.

En todo caso responderá de los daños que, con ocasión del uso del módulo y del desarrollo de su actividad, ocasione en los elementos comunes, en su propio módulo, así como en los de otras empresas cesionarias.

7.- Enpresa lagapen-hartzaileak konponketak egin ezean (BEAZ, S.A. Sozietateak eskabidea egin ondoren), sozietate horrek enpresaren kontura egin ahal izango ditu, eta fidantza gauzatu eta egintza judizial edo judizioz kanpoko egintza guztiak ere egin ahal izango ditu, baldin eta bidezkoak badira kasuan kasuko itzulketarako.

7.- Si la empresa cesionaria obligada no hiciera las reparaciones después de ser requerida para ello por BEAZ, S.A., podrá ésta ejecutarlas a costa del mismo, pudiendo ejecutar la fianza y ejercitar cuantas acciones judiciales o extrajudiciales, resulten pertinentes para el reintegro del importe correspondiente.

8.- Enpresa lagapen-hartzaileak beharrezko konponketa guztiak ahalbidetuko ditu lagatako moduluan, baldin eta horiek beharrezkoak badira higiezinaren edo instalazioaren eta elementu komunen mantenamendurako.

8.- La empresa cesionaria consentirá en el módulo cedido las reparaciones que exija el mantenimiento del inmueble o la instalación y mantenimiento de los elementos comunes.

9.- Modulua lagatzeko aldian, enpresa lagapen-hartzaileak bertara sartzeko baimena emango die, helburu jakineko bisitaldiak egiten dituzten eta Bizkaiko Foru Aldundiaren edota BEAZ, S.A. Sozietatearen baimena duten pertsonei.

9.- Durante el período de cesión del módulo, la empresa cesionaria permitirá la entrada en el mismo a aquellas personas que, debidamente autorizadas por la Diputación Foral de Bizkaia y/o por BEAZ, S.A., realicen visitas en cumplimiento de sus fines específicos.

10.- Enpresa lagapen-hartzaileak ezin izango du obrarik egin lagatako moduluan, baldin eta BEAZ, S.A. Sozietatearen berariazko baimenik ez badu.

10.- La empresa cesionaria no podrá realizar en el módulo cedido obras de ningún tipo, salvo expresa autorización por parte de BEAZ, S.A.,

11.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta BEAZ, S.A. Sozietateak, lagatako moduluan eta elementu komunetan, beharrezko obra eta hobekuntza guztiak egin ahal izango dituzte, baldin eta horiek enpresa lagapen-hartzaileak erabiltzeko eskubideari eta berorrek egindako jarduerari kalterik egiten ez badiote.

11.- La Diputación Foral de Bizkaia y BEAZ, S.A., podrán realizar en el módulo cedido, y en los elementos comunes, todas aquellas obras y mejoras útiles que no perjudiquen el derecho de uso de la empresa cesionaria, ni el desarrollo de la actividad ejercida por el mismo.

## III.- INDARRALDIA

Sondikako BEAZ MINTEGIAko ____ zenbakia duen moduluaren erabilera lagapenean emateko hitzarmenak hasieran HIRU URTEKO iraupena izango du, honako hitzarmen hau sinatuko denetik zenbatuta.

Epe hori luzatu egin daiteke, BEAZ, S.A. Sozietateak eskatuta, URTEBETERA arteko elkarren atzeko bi aldietan.

Luzapenen emakida erabat da BEAZ, S.A.ren eskumena. Erakunde honek enpresa lagapen-hartzaileari jakinaraziko dio horri oniritzi edo gaitziritzi zaiola, beti ere honako hitzarmen honetan ezarri den hasierako epea bukatu aurretik edo jardunean dagoen luzapena bukatu aurretik.

Nolanahi ere, erabilera lagatzearen gehieneko epea, hasierako aldia eta luzapenak kontuan hartuta, BOST URTEKOA izango da, hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita. Horrenbestez, bost urteko gehieneko epe hori betetzean, hitzarmen hau berez deuseztatuta eta erabileraren lagapena amaituta geldituko da, baldin eta BEAZ, S.A. Sozietateak luzapena berariaz ukatzen ez badu.

## III.- VIGENCIA

El presente convenio de cesión de uso del Módulo nº ____ del BEAZ MINTEGIA de Sondika tendrá una duración inicial de TRES AÑOS, contado a partir de la firma del presente convenio.

Este plazo podrá ser prorrogado potestativamente, a decisión de BEAZ, S.A., por un máximo de 2 periodos sucesivos de UN AÑO.

La concesión de las prórrogas será totalmente potestativa para BEAZ, S.A., que comunicará a la empresa cesionaria su aprobación o denegación, previamente a la fecha de finalización del plazo inicial establecido en el presente convenio, o del periodo de prórroga en curso.

En todo caso, el plazo máximo de duración de la cesión de uso, contando el periodo inicial y las prórrogas, será de CINCO AÑOS, contados a partir de la firma del presente convenio. Por tanto, el presente convenio quedará automáticamente rescindido, y la cesión de uso finalizada, al alcanzar este plazo máximo de duración de cinco años, en este caso aunque BEAZ, S.A., no haya denegado expresamente la prórroga.

IV.- ENPRESA LAGAPEN-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

IV.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA CESIONARIA

1.- Enpresa lagapen-hartzaileak lagapenaren aldian gutxienez ___ lanpostu sortzeko edota mantentzeko konpromisoa hartzen du, jarduera ___ lanposturekin hasi dela aintzat hartuta.

Enpresa lagapen-hartzaileak mantendu edota sortu beharreko lanpostuen kontrolerako eta jarraipenerako, enpresa horrek hiru hilabetean behin Gizarte Segurantzako kotizazio agirien fotokopia aurkeztu beharko du (TC-1 eta TC-2 ereduak, edo beste egiaztapenen bat).

2.- Enpresa lagapen-hartzaileak sozietatearen urteroko kontuen kopia eman beharko dio BEAZ S.A. Sozietateari, eta horretarako, gehienez hamabost eguneko epea izango du, onespena egiten denetik zenbatzen hasita. Era berean, Sozietateen gaineko Zergaren kopia ere aurkeztu beharko du.

3.- Eskrituren kopia ere BEAZ, S.A. Sozietateari eman beharko dio, estatutuetan aldaketaren bat eginez gero.

4.- Enpresa lagapen-hartzaileak laga zaizkion moduluetan hasi eta garatu beharko du jarduera osoa, baldin eta hori merkataritza helburuko ordezkaritzetan edo bulegoetan garatzen ez bada. Modulua erabiltzeko eskubidea pertsonala eta eskualdatu ezina da, eta ezin izango da azpierrentatu edo laga, ez oso-osorik eta ez zati batean, ezta dohainik ere.

5.- Hitzarmen hau sinatzean, BEAZ, S.A. Sozietateari jarduera hasteko eta garatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak eman beharko zaizkio, gaiari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Halaber, enpresa

1.- La empresa cesionaria se compromete a crear y/o mantener durante el periodo de cesión un mínimo de ___ puestos de trabajo, habiendo iniciado la actividad con ____ puestos de trabajo.

Para el control y seguimiento de los puestos de trabajo que se ha comprometido a mantener o crear la empresa cesionaria, ésta deberá presentar trimestralmente fotocopia de los documentos de cotización a la Seguridad Social (modelo TC-1 y TC-2 u otra acreditación suficiente).

2.- La empresa cesionaria deberá entregar todos los años a BEAZ, S.A., una copia de las cuentas anuales de la sociedad, en el plazo máximo de quince días desde que se produzca su aprobación. Asimismo, deberá facilitar una copia del Impuesto sobre Sociedades

3.- También deberá hacer entrega a BEAZ, S.A. de una copia de las escrituras en caso de que realizase cualquier modificación estatutaria.

4.- La empresa cesionaria deberá iniciar y desarrollar la totalidad de su actividad en los módulos cedidos, salvo la que se desarrolle en las delegaciones u oficinas con fines exclusivamente comerciales. El derecho de uso del módulo es personal e intransferible, no pudiendo ser subarrendado ni cedido en todo o en parte, ni siquiera a título gratuito o accidental.

5.- Deberá disponer y entregar, a la firma del presente convenio, copia a BEAZ S.A. de las licencias y autorizaciones administrativas que sean necesarias para el inicio y desarrollo de su actividad, de conformidad con la normativa vigente al

lagatzaileek BEAZ, S.A. Sozietateari Laneko Arriskuen Prebentziorako Planaren kopia eman beharko diote, hori Sondikako BEAZ MINTEGIA deritzonaren Plan Orokorrean sartu ahal izateko.

6.- Gehienez jota 3 hilabeteko epea egongo da, lagatako moduluan jarduera hasteko, lagapen-hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita.

7.- Modulua benetako erabilerako egoeran mantendu behar da; salbuespenez, BEAZ, S.A. Sozietateak arrazoituriko proposamena eginez gero, Foru Aldundiak erabilera aldi batean geldiarazteko baimena eman dezake.

8.- Jarduerari lotutako ibilgetua eta altzariak segurtatu behar ditu, eta erantzukizun zibileko asegurua egin beharko du, instalazioetan, elementu komunetan edo gainontzekoengan eragiteko moduko kalteak babesteko. BEAZ, S.A Sozietateak estalduraren zenbatekoa zehazteko eskumena izango du. Enpresa lagapen-hartzaileak, berriz, aseguru-polizen eta indarraldia egiaztatzen duten aldian behingo agirien kopia eman beharko dio BEAZ, S.A. Sozietateari.

9.- Enpresa lagapen-hartzaileak, halaber, __________aren ___(e)ko ___/___ Foru Dekretuan (moduluen lagapena arautzen duen dekretua) eta _________aren ___(e)ko ___/___ Foru Aginduan (modulua erabiltzeko lagapena ematen duena) ezarritako gainontzeko baldintza guztiak bete beharko ditu.

V.- SONDIKAKO BEAZ MINTEGIAREN ERAIKINEKO ELEMENTU ERKIDEAK

Elementu erkidetzat hartzen dira, berez zesiodun enpresek erkidegoan erabili eta

respecto. Asimismo será preciso que las empresas cesionarias dispongan y entreguen copia a BEAZ S.A. del necesario Plan de Prevención de Riesgos Laborales, para que pueda ser integrado en el Plan Global del BEAZ MINTEGIA de Sondika.

6.- Deberá comenzar su actividad en el módulo cedido en un plazo no superior a los 3 meses siguientes a la fecha de la firma del presente convenio de cesión.

7.- Deberá mantener el módulo en estado de utilización efectiva; excepcionalmente, y a propuesta razonada de BEAZ, S.A., la Diputación Foral podrá autorizar el cese temporal en su utilización.

8.- Vendrá obligada a asegurar el inmovilizado y el mobiliario afecto a la actividad, así como a concertar un seguro de responsabilidad civil por la cobertura de los daños que puedan ocasionarse a las instalaciones, elementos comunes o a terceros. BEAZ, S.A., tendrá la facultad de determinar la cuantía sobre la que debe establecerse la cobertura. La empresa cesionaria deberá entregar a BEAZ, S.A., copia de las pólizas de seguro y de los recibos periódicos acreditativos de su vigencia.

9.- La empresa cesionaria deberá cumplir también cualquier otra obligación que venga establecida en el Decreto Foral ___/____, de __ de __________, regulador de la cesión de módulos, y en la Orden Foral nº __/____, de __ de ______ , por la que se le concede la cesión en uso del módulo.

V.- ELEMENTOS COMUNES DEL EDIFICIO BEAZ MINTEGIA DE SONDIKA

Tienen la consideración de elementos comunes todos aquellos que por su

aprobetxatzeko modukoak diren elementuak, edo erabilpen orokorrekoak direnak.

naturaleza sean susceptibles de uso y aprovechamiento común por las empresas cesionarias, o bien sean de utilidad general.

Zesiodun enpresek elementu erkideak erabiltzeko eskubidea daukate, betiere gainerakoei erabiltzea eragozten ez badiete, eta BEAZ, S.A.k ezartzen dituen arauak betez erabiltzen badituzte. BEAZ S.A.k ebatziko ditu honen inguruan sortzen diren auziak.

Las empresas cesionarias tienen derecho al uso de los elementos comunes de forma que no impidan el uso de los mismos a las demás y de conformidad con las normas que establezca BEAZ, S.A., quien resolverá los conflictos que se susciten a este respecto.

VI.- ZESIODUN ENPRESEI EGITEKO ZERBITZUAK.

VI.- SERVICIOS A PRESTAR A LAS EMPRESAS CESIONARIAS.

Sondikako BEAZ MINTEGIA eraikinak ondo funtzionatuko duela ziurtatzeko, BEAZ, S.A. sozietate publikoak zesiodun enpresei ondoko zerbitzu hauek egingo dizkie:

Con objeto de asegurar el correcto funcionamiento del edificio BEAZ MINTEGIA de Sondika, la sociedad pública BEAZ, S.A., prestará a las empresas cesionarias los siguientes servicios:

1.- Gutxienezko zerbitzu orokorrak:

Zesiodun enpresei oro har ukitzen dieten zerbitzuak izango dira. Edonola ere, hona hemen zeintzuk diren:

a) Administrazio orokorra.
b) Harrera.
c) Telefonoko zentralaren, fotokopiagailuaren eta faxaren zerbitzuak artatzea.
d) Zaintza, garbiketa, lorezaintza eta mantentze lanak.
e) Bisiten aretoa.
f) Atseden eremua - Jantokia.
g) Bilera aretoak, aldagelak eta botikina.

1.- Servicios mínimos de carácter general:

Tendrán este carácter aquellos servicios que afecten a la generalidad de las empresas cesionarias. En todo caso tendrán este carácter los siguientes:

a) Administración general.
b) Recepción.
c) Atención a los servicios de centralita telefónica, fotocopiadora y fax.
d) Vigilancia, limpieza, jardinería y mantenimiento.
e) Sala de visitas.
f) Área de descanso – comedor.
g) Salas de reuniones, vestuarios y botiquín.

Lagapen-hartzaile den enpresak, justifikatzen duten arrazoi objektiboan daudenean, bere moduluan fotokopiagailuak, telefonoak eta bestelako zerbitzu independenteak jarri ahal izango ditu, aurretiaz BEAZ, S.A.ren baimena badauka.

La empresa cesionaria, cuando razones objetivas así lo justifiquen, podrá instalar en su módulo fotocopiadoras, teléfonos y otros servicios independientes, previa autorización de BEAZ, S.A.

Gutxienezko zerbitzu orokorrei egozteko moduko gastuak dira zerbitzu horiek betetzeaz arduratzen diren BEAZ MINTEGIAko langileen ondoriozkoak edo, bestela, itun litezkeen zerbitzuak betetzeko kontratuen kosteak. Era berean, zerbitzu horiek betetzeko erabiltzen diren ondasunen balio galeraren kostea ere sartzen da, eta prestaziorako egiten diren beste gastu batzuk ere bai.

Constituyen gastos atribuibles a los servicios mínimos de carácter general, los derivados del personal de BEAZ MINTEGIA encargado de prestarlos o, en su caso, el costo de los contratos de prestación de servicios que puedan concertarse. Asimismo, se incluye el costo de la depreciación de los bienes que se utilicen directamente para prestarlos y otros gastos en los que se incurra para su prestación.

Arestian esandakoez gain, gutxieneko zerbitzu orokorrei BEAZ, S.A. sozietate publikoaren funtzionamenduaren gainerako kosteen %15a ere egotz liezaieke, Sondikako BEAZ MINTEGIAren jarduerari lepora dakizkiokeelako.

Además de los anteriores, también constituyen gastos atribuibles a los servicios mínimos de carácter general, el 15 % del resto de los costos de funcionamiento de la Sociedad Pública BEAZ, S.A., por considerarse imputables a la actividad de BEAZ MINTEGIA de Sondika.

2.- Banakoentzako gutxienezko zerbitzuak:

2.- Servicios mínimos de carácter individual:

Lagapen-hartzailea den enpresak banaka erabiltzeko modukoak izango diren zerbitzuak dira eta, bereziki, ondoko hauek: fotokopiagailuaren, faxaren eta telefonoaren eta beste komunikazio zerbitzu batzuen kontsumoa.

Tendrán este carácter aquellos servicios susceptibles de uso individualizado por la empresa cesionaria, y en particular: consumo de fotocopiadora, fax, teléfono y otros servicios de comunicación.

3.- Aukerazko zerbitzuak:

3.- Servicios opcionales:

Zesiodun edozein enpresak BEAZ, S.A.ri zerbitzu berrien prestazioa eskatu ahal izango dio; BEAZ, S.A.k dagokion azterlana egin ondoren, prestazioaren gainean erabakiko du, baita zerbitzu horiek erabiltzen dituzten zesiodun enpresei horien ezarpenak eta mantentzeak ekarriko dien kostearen gainean ere.

Cualquier empresa cesionaria podrá solicitar a BEAZ, S.A., la prestación de nuevos servicios; BEAZ, S.A., tras el estudio que corresponda, decidirá sobre su prestación, así como sobre la repercusión del costo de implantación y mantenimiento a las empresas cesionarias que usen los mismos.

VII.- LAGAPEN-HARTZAILE DEN ENPRESAK ORDAINU BEHARREKO KUOTAK ETA GASTUAK

VII.- CUOTAS Y GASTOS A SATISFACER POR LA EMPRESA CESIONARIA

Lagapen-hartzailea den enpresek hilero BEAZ MINTEGIA eraikineko elementu erkideen funtzionamendu, kontserbazio eta segurtapeneko gastuei aurre egiten lagundu beharko dute, hilero, baita betetako

La empresa cesionaria tendrá la obligación de contribuir mensualmente a los gastos de funcionamiento, conservación y aseguramiento de los elementos comunes del edificio BEAZ MINTEGIA, así como a los

gutxieneko zerbitzu orokor eta banakoen ondoriozko gastuei ere. Era beran, erabiltzen duten moduluaren kontserbazio eta mantentze gastuak oso-osorik ordainduko dituzte.

A) Elementu erkideen gastuei dagokien kuota aldakorra izango da, eta izatezko gastuei erabilitako moduluaren gainazalaren metro karratuak BEAZ MINTEGIA eraikinaren guztirako gainazalaren zer proportzio diren arabera kalkulatuko da. Kuota urteko ekitaldi bakoitzean eguneratuko da, izatezko gastuetara moldatzeko.

Gutxieneko zerbitzu orokorrei dagokien kuota erabilitako moduluaren gainazalaren metro karratuen arabera kalkulatuko da, eta lagapen-hartzaile den enpresak zerbitzu horiek erabili ez arren ordaindu beharko ditu. Kuota urteko ekitaldi bakoitzean eguneratuko da, izatezko gastuetara moldatzeko.

______ ekitaldi honetarako, lagapen-hartzaile den enpresak guztira ordaindu beharko dituen kuotak, elementu erkideengatik eta gutxieneko zerbitzu orokorrengatik, _____________ euro izango dira.

B) Banakoen gutxieneko zerbitzuei dagozkien gastuak lagapen-hartzaile den enpresak egindako kontsumoaren arabera kalkulatuko dira.

Aukerazko zerbitzuen kostea lagapen-hartzaile den enpresak zerbitzu horiek erabiltzen baditu soilik ordainduko du.

Erabilitako moduluaren kontserbazio eta mantentzeen gastuen izatezko kostea ordainduko du lagapen-hartzaile den enpresak.

gastos relativos a los servicios mínimos de carácter general e individual prestados. Igualmente deberá sufragar en su totalidad los gastos de conservación y mantenimiento del módulo utilizado.

A) La cuota correspondiente a los gastos de los elementos comunes será variable y se calculará aplicando a los gastos reales el porcentaje que suponen los metros cuadrados de superficie del módulo utilizado respecto a la superficie modular total del edificio BEAZ MINTEGIA. Esta cuota se actualizará en cada ejercicio anual, con el fin de adecuarla a los gastos reales.

La cuota correspondiente a los servicios mínimos de carácter general se calculará en función de los metros cuadrados de superficie del módulo utilizado, y será satisfecha aún cuando la empresa cesionaria no use de dichos servicios. Esta cuota se actualizará en cada ejercicio anual, con el fin de adecuarla al coste real de los servicios prestados.

Para el corriente ejercicio ____, la suma de las cuotas a pagar por parte de la empresa cesionaria, por los conceptos de elementos comunes y servicios mínimos de carácter general, ascenderá a la cantidad de _____________ euros.

B) Los gastos correspondiente a los servicios mínimos de carácter individual se calcularán en función del consumo que la empresa cesionaria haya realizado.

El coste de los servicios opcionales únicamente será satisfecho cuando la empresa cesionaria utilice los mismos.

Los gastos de conservación y mantenimiento del módulo utilizado, serán satisfechos por la empresa cesionaria por su coste real.

C) Lagapen-hartzaile den enpresak ordaindu beharreko kuotaren fakturazioa hilero egingo da, eta kuota hori hil bakoitzeko lehenengo bost lanegunen barruan ordainduko da.

VIII.- HOBARIAK KUOTETAN

BEAZ MINTEGIAko egonaldiaren lehenengo hiru urteetan, horrenbeste irautekotan, lagapen-hartzaile den enpresak elementu erkideen eta gutxieneko zerbitzu orokorren gastuei dagozkien kuotetan ondoko hobariaz gozatuko du, _____ko ___________ aren _____(e)ko ____/____ Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera:

Lehenengo urtean:

- Oro har: indarreko hileko kuotaren %50eko hobaria. Beraz, lagapen-hartzailea den enpresak indarreko kuotaren %50a ordainduko du.

- E.bit enpresek indarreko hileko kuotaren %75eko hobaria. Beraz, lagapen-hartzailea den e.bit enpresak indarreko kuotaren %25a ordainduko du.

Bigarren urtean:

- Oro har: indarreko hileko kuotaren %35eko hobaria. Beraz, lagapen-hartzailea den enpresak indarreko kuotaren %65a ordainduko du.

- E.bit enpresek indarreko hileko kuotaren %50eko hobaria. Beraz, lagapen-hartzailea den e.bit enpresak indarreko kuotaren %50a ordainduko du.

Lehenengo urtean:

- Oro har: indarreko hileko kuotaren

C) La facturación de la cuota a satisfacer por la empresa cesionaria se realizará mensualmente, debiendo abonarse dicha cuota dentro de los cinco primeros días hábiles de cada mes.

VIII.- BONIFICACIONES EN LAS CUOTAS

Durante los tres primeros años de estancia en BEAZ MINTEGIA, si se llega a alcanzar dicho plazo, la empresa cesionaria disfrutará de la siguiente bonificación en las cuotas correspondientes a los gastos de los elementos comunes y a los servicios mínimos de carácter general, de acuerdo con lo establecido en el Decreto Foral ___/____, de __ de ____________:

Primer año:

- Con carácter general: bonificación del 50 % de la cuota mensual vigente. Por tanto, la empresa cesionaria abonará el 50 % de la cuota vigente.

- Empresas e.bit: bonificación del 75 % de la cuota mensual vigente. Por tanto, la empresa e.bit cesionaria abonará el 25 % de la cuota vigente.

Segundo año:

- Con carácter general: bonificación del 35 % de la cuota mensual vigente. Por tanto, la empresa cesionaria abonará el 65 % de la cuota vigente.

- Empresas e.bit: bonificación del 50 % de la cuota mensual vigente. Por tanto, la empresa e.bit cesionaria abonará el 50 % de la cuota vigente.

Tercer año:

- Con carácter general: bonificación del

%15eko hobaria. Beraz, lagapen-hartzailea den enpresak indarreko kuotaren %85a ordainduko du.

- E.bit enpresek indarreko hileko kuotaren %25eko hobaria. Beraz, lagapen-hartzailea den e.bit enpresak indarreko kuotaren %75a ordainduko du.

15 % de la cuota mensual vigente. Por tanto, la empresa cesionaria abonará el 85 % de la cuota vigente.

- Empresas e.bit: bonificación del 25 % de la cuota mensual vigente. Por tanto, la empresa e.bit cesionaria abonará el 75 % de la cuota vigente.

Laugarren eta bosgarren urteetan: lagapen-hartzaile den enpresak indarreko kuotaren %100 ordainduko du.

Cuarto y quinto año: la empresa cesionaria abonará el 100 % de la cuota mensual vigente.

Hobari horiek lagapen-hartzaile den enpresarentzako laguntza gisa hartuko dira, 2001eko urtarrilaren 13ko Europar Erkidegoetako Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen MINIMIS laguntzei EB Tratatuaren 87 eta 88. artikuluen aplikatzearen gaineko 2001eko urtarrilaren 12ko Batzordearen 69/2001 Arautegian (EB) xedatutakoaren ondoreetarako eta, ondorioz, araudi hori ez betetzeak urratzaileari erantzukizun penal, zibil eta administratiboa ekar liezaioke.

Las citadas bonificaciones tendrán el carácter de ayuda para la empresa cesionaria, a efectos de lo dispuesto en el Reglamento (CE) nº 69/2001 de la Comisión de 12 de enero de 2001, publicado en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 13 de enero de 2001, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas de MINIMIS y, en consecuencia, el incumplimiento de esa normativa podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para el infractor.

## IX.- BERMEA

Lagapen-hartzaile den enpresak, itun honen klausulak beteko direla bermatzeko, _____________ euroko fidantza eratu du BEAZ, S.A.ren alde, dagokion gordekina erakutsiz kreditatu duen bezala. BEAZ, S.A.k, fidantzatik lagapen-hartzaile den enpresaren betebeharrak betetzeko behar diren zenbatekoak atxiki ahal izango dituelarik.

Bermearen indarraldia mugagabea izango da, harik eta BEAZ, S.A.k deuseztatzeko baimena ematen duen arte luzatuko dena. Esandako fidantza honek lagapen-hartzaile den enpresak itun honetan bere gain hartzen dituen betebeharrak bermatzen ditu.

## IX.- GARANTÍA

La empresa cesionaria, en garantía del cumplimiento de las cláusulas del presente convenio, constituye fianza a favor de BEAZ S.A., por importe de _____________ euros, según acredita mediante exhibición del correspondiente resguardo, pudiendo BEAZ, S.A., ejecutar la misma, detrayendo las cantidades necesarias para el cumplimiento de las obligaciones de la empresa cesionaria.

La garantía quedará constituida con vigencia indefinida hasta el momento en el que BEAZ S.A. autorice su cancelación. La fianza descrita garantiza las obligaciones asumidas por la empresa cesionaria en el presente convenio.

X.- ITUNA ETETEKO ZERGATIAK

Erabilpenaren lagapena ondoko arrazoiengatik etengo da:

1.- Lagapen-hartzaile den enpresak itun honetan,____ko ____________ren ___(e)ko ___/____ Foru Dekretuan eta _____ko ___________ren ____(e)ko __/____ Foru Aginduan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu.

2.- Lagapen-hartzaile den enpresaren nortasun juridikoa iraungitzen bada.

3.- Lagapen-hartzaile den enpresaren porrota edo ordainketa etena gertatzen bada.

4.- Eskari eta Txostenarekin batera zein lagapenaren epean zehar aurkeztutako dokumentazioan faltsutasunenik badago.

5.- BEAZ,S.A.k baimendu ez duen edozein jarduera aldaketarengatik.

6.- ______ lanpostu sortu edota mantentzeko hartutako konpromisoa ez betetzeagatik.

BEAZ, S.A.k ituna etetea erabaki ahal izango du, hona agertutako bi alderdiek espresuki hala hitzartu baitute.

Lagapenaren etenak ez du inola ere lagapen-hartzaile den enpresarentzako inongo kalte ordainen eskubiderik ekarriko.

Modulua ez da utzitzat hartuko harik eta Bizkaiko Foru Aldundiari guztiz hutsik eta laga zen bezala itzuli arte. Lagapen-hartzaile den enpresak modulua erabat uzten duen arte, efektiboki erabiltzen ariko balitz bezala ordainduko ditu kuotak.

X.- CAUSAS DE RESOLUCION DEL CONVENIO

Son causas de resolución de la cesión de uso, las siguientes:

1.- El incumplimiento de las obligaciones de la empresa cesionaria contenidas en el presente convenio, así como en el Decreto Foral ___/____, de __ de __________, y en la Orden Foral nº __/____, de __ de ______.

2.- La extinción de la personalidad jurídica de la empresa cesionaria.

3.- La declaración de quiebra o suspensión de pagos de la empresa cesionaria.

4.- Cualquier falsedad en documentación presentada junto con el Informe-Solicitud, o a lo largo del periodo de cesión.

5.- Cualquier cambio de la actividad no autorizado por BEAZ, S.A.

6.- El incumplimiento del compromiso de crear y/o mantener _____ puestos de trabajo.

La resolución del convenio podrá ser decidida por BEAZ, S.A., lo que las partes comparecientes pactan expresamente.

La resolución de la cesión en ningún caso comportará derecho de indemnización a favor de la empresa cesionaria.

El módulo no se entenderá abandonado hasta el momento en que sea puesto a disposición de la Diputación Foral de Bizkaia totalmente desocupado y en el mismo estado en el que fue cedido. En tanto la empresa cesionaria no abandone totalmente el módulo deberá abonar las cuotas como si lo estuviera utilizando efectivamente.

XI. ITUNAREN IRAUNGIPENA

Ituna iraungiko da lagapenaren indarraldia agortzen denean, edo lagapen-hartzaile den enpresak jarraitzeari uko egiten dionean. Arrazoi horiek itun hau iraungitzea eragingo dute, bestelako izapideren beharrik gabe.

Aurreko klausulan aurreikusitako etenaren kasuan bezala, lagapenaren iraungitzeak ez du inola ere lagapen-hartzaile den enpresarentzako inongo kalte ordainen eskubiderik ekarriko.

Lehen aipatutako iraungipen arrazoiak daudenean, modulua lagapenaren indarraldia amaitzen den egunean edo lagapen-hartzaile den enpresak lagapenari uko egiten dion egunean utzi beharko da.

Hala ere, lagapen-hartzaile den enpresak modulua aurreko klausulan esandako baldintzetan erabat hustu arte, efektiboki erabiltzen ariko balitz bezala ordainduko ditu kuotak.

Lagapen-hartzaile den enpresa modulua hustera behartuta badago, dela ituna eten delako dela iraungi delako, eta ezarritako epean husten ez badu, alderdiek espresuki itundu dute, zigorrezko klausula gisa, lagapen-hartzaile den enpresa horrek lagapen-emaileari EGUNEKO ____________ EURO ordainduko dizkiola, harik eta benetan hustu arte. Hori guztia gorabehera, dagozkion kuotak ordaindu beharko ditu, arestiko lerroaldean esan den bezala.

Eta ados daudela erakusteko, itun honen hiru ale sinatu dituzte, ondore bakarrerako,

XI. EXTINCIÓN DEL CONVENIO

Serán causas de extinción del convenio la finalización del plazo de vigencia de la cesión y la renuncia de la empresa cesionaria, las cuales determinarán la extinción del presente convenio sin más trámite.

Al igual que en el caso de resolución previsto en la cláusula anterior, la extinción de la cesión en ningún caso comportará derecho de indemnización a favor de la empresa cesionaria.

Cuando concurran las causas de extinción antes citadas, el módulo deberá ser abandonado en la fecha en que finalice el plazo de vigencia de la cesión o en que se produzca la renuncia de la empresa cesionaria.

No obstante lo anterior, en tanto la empresa cesionaria no desocupe totalmente el módulo en las condiciones descritas en la cláusula anterior, deberá abonar las cuotas como si lo estuviera utilizando efectivamente.

En caso de que la empresa cesionaria se viera obligada a desocupar el módulo, sea por causa de resolución o de extinción del convenio, no lo haga dentro del plazo establecido, las partes pactan expresamente, en concepto de cláusula penal, que dicha empresa cesionaria deberá abonar a la cedente la cantidad de ____XXXX________ EUROS DIARIOS, hasta que se produzca el efectivo desalojo. Todo ello sin perjuicio de la obligación de pago de las cuotas correspondientes, de acuerdo con lo señalado en el párrafo anterior.

Y en prueba de conformidad, suscriben el presente convenio, por triplicado ejemplar y a

goiburuan esandako tokian eta egunean.

un sólo efecto, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik,
Por la Diputación Forall de Bizkaia,

BEAZ, S.A.ren aldetik,
Por BEAZ, S.A.,

Lagapen-hartzaile den enpresaren aldetik,
Por la empresa cesionaria,